

Ekologikoak

2

EKOGELA
CPAEN/
NNPEKren
hezkuntza-
proiektu berria

4

ELIKAGAI
EKOLOGIKOAK
5.000 tomate
pote Elikagaien
Bankuarentzat

5

CPAEN/NNPEK
Operadoreen
berriak

LG NA
1181-2021

CPAEN/NNPEK
Serapio Huici etorbidea, 22. Perituen eraikina 31610 Atarrabia [Nafarroa]

2024/12 — N.#4



Nafarroako IX Azoka Ekologikoa



www.navarraecologica.org
www.cpaen.org



12 ikastetxetako 300 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute EKOgela hezkuntza proiektuan

EKOgela CPAEN/NNPEKren proposamena da, Nafarroako ikastetxeekin lankidetzan aritzeko elikagai ekologikoen ezagutza eta onurak zabaltzeko. Programaren lehen edizioan, Nafarroa osoko 12 ikastetxetako 314 ikaslek hartu dute parte.

2023-2024 ikasturtean eta 2024-2025 ikasturtearen hasieran egindako ekimean, irakasleei prestakuntza eman zaie elikagai ekologikoei eta haien etiketatzeari buruz, ikasleak sentsibilizatu dira hezkuntza-jardueren bidez, eta familiak sentsibilizatu dira nutrizio-tailerren eta elikagai ekologikoekin egindako sukaldaritza-eskolen bidez. Gainera, eskola EKOpelan egin dira, eta Nafarroako nekazari eta abeltzain ekologikoak bisitatu. Zehazki, EKOpelan Falzesko Ecológicos Aranda olibadia, Orreagako INTIAren abeltzaintza ekologikoa eta Aspaceko gaztandegia eta Gartzaingo AndalorrEKO okindegia ezagutu dira. Horrela, ikasleek bertatik bertara ezagutu dute elikagai ekologikoak nork, non eta nola ekoizten dituzten.

Hezkuntza-proiektuaren eta ikastetxeen parte-hartzearen balorazioa oso ona izan da. Ikasleei begira jarrita, oso interesgarria izan da hain adin txikietan elikagai ekologikoen inguruan kontzientziatzen hastea. Sentsibilizazio-saioen bidez, beste elikadura-ohitura osasungarri eta jasangarriago batzuk hartu eta ezagutu dituzte. Aipamen berezia behar dute beren lursail eta instalazioetako ateak ireki dituzten ekoizleei eta elaboratzaile ekologikoei, jarrera eta ilusio handiz lagundu baitute eskola-umeak sentsibilizatzeko lan horretan. Funtsezkoa eta beharrezkoa iruditzen zaie kontsumo-ereduan eta gizartearen konpromiso eta kontzientziazioan aldaketa bat lortzeko.

Hezkuntza-proiektua Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleei zuzenduta egon da. CPAEN/NNPEKren ustez, beharrezkoa da etorkizuneko hitzarmenetan Nafarroako beste ikastetxe batzuetan sentsibilizazioarekin jarraitzea eta ikasgeletan kontzeptu hauek sartzea: elikagaien sasoia, tokiko elikagai ekologikoen kontsumoa, elikadura ekologikoaren garrantzia, lehen sektore ekologikoari balioa ematea eta ekintza horiek guztiek landa ingurunean duten eragin positiboa. Gainera, azpimarratu beharreko alderdi positibo bat da ekintza nagusia ikasleekin egin bada ere, irakasleek eta guraso elkarteek ere parte hartzen dutela jardueretan, eta, hala, eskola-komunitate osora iristen direla.

Horri esker, hainbat erakundek elikadura osasungarri eta jasangarriaren oinarriak landu dituzte modu ludiko eta hezitzailean, dela eskola-denboran, dela eskolaz kanpo. Hezkuntza proiektua CPAEN/NNPEKk Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuarekin duen hitzarmenaren barruan dago, Nafarroako ikastetxetako ikasgeletan elikagai ekologikoei buruzko ezagutza areagotzeko. ■



Ezagutu gehiago
EKOgela:



Hezkuntza proiektua Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6.era bitarteko ikasleentzat da eta doakoa da Nafarroako ikastetxe guztientzat.

Parte hartu duten ikastetxeak

Ikastetxea	Herria
01 GARCIA GALDEANO HLHIP	Iruñea
02 PATXI LARRAINZAR HLHIP	Iruñea
03 ELIZONDO HLHIP	Elizondo
04 LEKAROS HLHIP	Lekaroz
05 GARTZAIN HLHIP	Gartzain
06 GARCÉS DE LOS FAYOS IKASTOLA	Tafalla
07 ERRATZU HLHIP	Erratzu
08 XABIER ZUBIRI HLHIP	Zubiri
09 AURITZ BURGUETE HLHIP	Auritz-Burguete
10 AUZPERRI HLHIP	Espinal-Auzperrri
11 GARRALDA HLHIP	Garralda
12 LUZAIDE HLHIP	Valcarlos-Luzaide

Hezkuntza-programa

Irakasleentzako prestakuntza

CPAEN/NNPEKko teknikariek ematen dute prestakuntza, irakasleek funtsezko ezagutzak izan ditzaten, elikagai ekologikoak zer diren, nola landatzen diren, ingurumenean zer onura dituzten eta etiketen bidez nola identifikatu behar diren jakiteko.



Ikasleak sentsibilizatzea

CPAEN/NNPEKk elikadura osasungarri eta iraunkorraren inguruan garatutako unitate didaktiko bat lantzen da hainbat saiotan, gelan. Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailako ikasleentzat da.



Familiak sentsibilizatzea

Guraso-elkarteentzako hitzaldiak eta tailerrak eskaintzen dituzte, familia giroan elikagai ekologikoen onurak ezagutzeko eta nutrizio ekologikoari buruz ikasteko.



Horrez gain, profesionalak emandako sukaldaritza-klaseetara joateko aukera ere badago, elikagai ekologikoekin egindako elaborazioak ikasteko.



Eskola-EKOpelan

Nafarroako nekazari eta abeltzain ekologikoak bisitatzeko aukera eskaintzen da, bertatik bertara ezagutzeko elikagai ekologikoak nola lantzen eta ekoizten dituzten, hamaiketako ekologikoa barne.

Nafarroako IX. Azoka Ekologikoak marka hautsi du jendetza eta salmentetan

Nafarroako ekoizpen ekologikoaren hitzordu handiak irailean itxi zituen ateak, aurreikuspen guztiak gaindituz eta milaka bisitarirekin bertaratze errekorra hautsiz. 37 stand eta 30 jarduera baino gehiago egin ziren irailaren 13tik 15era Noingo Zentzumenen Parkean.

Nafarroako Azoka Ekologikoak milaka bisitari izan zituen bere bederatzigarren edizioan. CPAEN/NNPEKk oso positiboki baloratzen du sektore ekologikoaren ekitaldi handia, Nafarroako elikagai ekologikoei balioa eman diena, ekoizpen ekologikoko 37 postu baino gehiagorekin, horietako gehienak Nafarroako ekoizle ekologikoenak. Laugarren urtez Noingo Zentzumenen Parkean egiten den ekitaldi kontsolidatua da, tokiko ekoizpen ekologikoa sustatzeko eta elkartzeko gune gisa. Sektore ekologikoaren ahalegina da, eta salmenta zuzenaren alde egiten jarraitzen du, ekoizle eta herritarren arteko topaketaren alde.

Jendearen joan-etorria etengabea izan zen asteburu osoan zehar; izan ere, ateak itxi baino lehen, postu askok agortuak zituzten beren izakinak, eta beste batzuk agortzear zeuden. Pomada ekologikoen tailerra, yoga familiarra gosariarekin, saskigintza tailerra edo ekoizleen presentziarekin bi eskuetara egindako dastaketak izan ziren jarduerarik arrakastatsuenetako batzuk. Parte hartzaileek zein antolatzaileek azokaren arrakasta nabarmendu zuten, aurten oso zapore ona utzi duelako eta datozen edizioetan lanari ekiteko balio duelako. Izan ere, datorren urtean hamargarren edizioa beteko du azokak, eta, beraz, oso programazio bereziarekin ospatuko du urteurrena.

Izan ere, hitzordu honek, beste behin ere, erakutsi du Nafarroako nekazaritza ekologikoaren sektorea gai dela askotariko produktuen lagin bat eskaintzeko, herritarrek bizimodu osasuntsua izan dezaten. Horretarako, elikagai freskoak nahiz elaboratuak kontsumitzen dituzte, eta horien ezaugarri nagusia da ingurumena errespetatzen duten nekazaritza-praktikak erabiliz ekoizten direla, ziklo naturalak eta animalien ongizatea errespetatuz, pestizidak eta ongarrak kimikoak erabiltzea saihestuz, kimikaririk eta ezaugarri organoleptikoak aldatzen dituzten elementurik gabe. ■

Lau ekoizle berrik bat egin dute EKOplanekin

CPAEN/NNPEKk 20 EKOplan eskaintzen ditu Nafarroako geografia osoan ekoizpen ekologikoko proiektuak bisitatzeko operadoreen eskutik.



Zure finkan edo instalazioetan bisita gidatuak egiten badituzu eta EKOplanetan parte hartzeko interesa baduzu, idatziezaguzu mezu bat cpaen@cpaen.org helbidera, bat egiteko.



navarraecologica.org webguneak 20 EKOplan biltzen ditu Nafarroa osoan zehar. Bertan, proiektu ekologiko bat bisitatzeko, oinez edo bizikletaz ibilbide bat egitea eta jaki ekologikoak dituzten jatetxeetan proposamen gastronomiko batekin amaitzea proposatzen da. Aurten lau proposamen berri batu dira Nafarroako Pirinioetan, Baztanen eta Erriberan.

Lehenengoak Erronkari ibarrera garamatza, **Asier Diaz de Zerio eta Silvia Erlanzen** nafar behorrak bisitatzera. Belaguan, Jeguacerosetik Larra-Azta-parreta Erreserbaraino, Nafarroako erreserba naturalik handieneraino, larratzen dira Nafarroako behor ekologikoak, galtzeko arriskuan daudenak. Arraza autoktonoa da, landatarra eta ingurunera egokitua. Behorrak estentsiboan daude urte osoan zehar, Erronkariko haraneko gailur garaietatik haraneko behealderraino neguan.

Arizkungo Baztango Xurie proiektua ere batu da EKOplanetara. 2013an, Ana Iriartek eta Iñaki Bengoetxeak mahastien lehen landaketa egin zuten Arizkungen, Baztango Xurie proiektuari hasiera emanez eta 3 hektarea lur landuz, dena ekologikoan eta zikloa itxiz, horretarako prestatu zuten upategi txikian. Bisitan mahastia eta upategia bisita daitezke, eta bertan ardoa dastatzeko aukera ere badago, nahi izanez gero pintxo batekin lagunduta.

Hurrengo EKOplanak Ebroko Erriberako ekimen ekologikoak bizikletaz bisitatzeko proposatzen du, bertako arduradunen eskutik. Ibilbidea Tuteran hasten da, **Mejana Gourmet** bisitatu, bazterketa arriskuan dauden pertsonak kontratatzen eta prestatzen dituen enpresa-eskola. Bere jarduera produktiboak dimensio industrial bat hartzen du, lantegia, eta nekazaritzako beste bat, baratzeak, dena ekologikoa, jakina. Hortik aurrera, **Artajo** olioen finkara iritsiko gara. Fontellen duten finkan oliba-olio birjina estra egiten dute, eta bisita gidatua eta olio-dastaketa eta almendra ekologikoak izango ditugu. Ekainean EKOplan hau bizikletaz gozatzeko aukera izan genuen, Biela y Tierra kolektiboarekin eta planarekin bat egin zuten hogeit hamar lagunekin batera. ■

CPAEN/NNPEK eta Aspacek 5.000 pote tomate frijitu ekologiko entregatu dituzte Elikagaien Bankuan

CPAEN/NNPEKek eta Aspacek tomate frijitu ekologikoko 5.000 kontserba-pote entregatu dituzte Nafarroako Elikagaien Bankuan. Irailaren 23an, Ekoizpen Ekologikoaren Europako Eguna zela eta, Lodosan bildu zituzten tomateekin egin dute kontserba, Pedro Luis Kontserben baratzean.

Joan den urriaren 31n, Nafarroako Elikagaien Bankuan, Pedro Luisek Lodosako instalazioetan egindako tomate frijitu ekologikoaren 5.000 kontserbak emateko ekitaldia egin zen. Irailaren 23an, Ekoizpen Ekologikoaren Europako Egunarekin bat eginez, Aspaceko neska-mutil talde bat, CPAEN/NNPEKeko Borraja Komandoko boluntarioekin batera, Lodosara joan zen tomate ekologikoak biltzera, eta gero kontserbak egiteko.



Conservas Pedro Luis arduratu da kontserba egiteaz, eta etiketa berezi bat diseinatu da horretarako. Aspaceko beste erabiltzaile talde bat Lodosara joan zen azken fase hori, etiketatze-fasea, egiaztatzea eta 5.000 ontziak Elikagaien Bankura eraman dituen kamioia kargatzera.



Ekintza CPAEN/NNPEKi atxikitako Borraja Komandoaren jardueren barruan kokatzen da. Talde horrek hogeiki ekintza ditu 2017an sortu zenetik, Nafarroako nekazaritza eta ekoizpen ekologikoa sustatzeko eta izaera sozial eta solidarioa duten ekintzak egiteko. Oraingoan, Aspaceren eskutik jardun du. Gainera, Conservas Pedro Luis, 601 ikus-entzunezko ekoizlea eta Buruxka elkartearen laguntza izan du. Lodosako Udalak eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ere lagundu dute. ■



Ziurtapen-gidak, orain ere euskaraz

Operadore ekologikoaren ziurtagiria lortzeko bete behar diren baldintzei buruzko informazioa duten ziurtapen-eskuliburuak euskaraz daude eskuragarri. Horrela, ziurtapen-prozesuari eta figura bakoitzaren betekizunei buruzko informazioa nahi duen edonork informazioa gaztelaniaz eta euskaraz du.

Eskuliburuak www.cpaen.org/eu/ziurtapena helbidean daude. Guztira, 8 gida dira, honako hauei buruzkoak: banaketa, elaborazioa, inportazioa, abeltzaintza-ekoizpena (akuikultorea, erlezaina, hegatzizaina, ugaztunak) eta landare-ekoizpena. ■



Ziurtagiria kentzea dakarten ez-betetzeak

CPAEN/NNPEKk jakinarazi nahi du ziurtagiri-kentzeak produktuen izaera ekologikoari, ez-betetzeak behin eta berriz egiteari edo produktuaren edo araudia- ren betetzea ebaluatzea ahalbidetzen duen egiaztagiririk ez izateari eragiten dioten ez-betetzeak direla. Operadoreen %3 ingururi eragiten die honek.

Ez-betetze horiek, gainera, kalte erantsia ekar diezaietete deskalifikatutako produktua jaso duten bezeroei, eta operadoreak horren berri eman behar dio, araudian ezarritakoaren arabera. Kasu batzuetan, zuzeneko laguntzen zenbatekoak ere zigortu daitezke, halakorik izanez gero. NNPEKk ez-betetze larrienen edo ohikoenen berri eman nahi die operadoreei, bai eta operadore bakoiki tzaren erantzukizunaren barruan horiek saihesteko aplikatu beharreko oinarrizko neurrien berri ere. Honako hauek dira:

GENERIKOAK

- » EKO ez den produktua erabiltzea, ziurta tu gabeko hornitzaileengandik datorrena. Hornitzaile guztien ziurtagiria eskatu eta eduki behar du indarrean.
- » EKO ez den produktua erabiltzea. Jasotako eko-produktuen kopuru guztien sarrera--erregistroak (albaranak edo fakturak) es katu eta eduki behar ditu, eta "ekologikoa" edo "konbertsioa" dagokion nahitaezko terminoa eta hori ziurtatzen duen ziurtagiria jaso behar ditu.

ELIKAGAIEN ERALDAKETA

- » Gehigarriak, laguntzaileak edo bat ez datozen substantzia enologikoak erabiltzea elikagaiak eraldatzeko. Elikagai berrien ziurtagiria eskatu behar diozu CPAEN/NNPEKi, merkaturatu aurretik. Dagoeneko ziurtatuta dauden produktuen formulazioak/errezetak aldatuz gero, osagai berriak egokiak direla ziurtatu behar da.

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA

- » Onartuta ez dauden fitosanitarioak edo ongarriak erabiltzea. Ongarrien kasuan, Nekazaritza Ekologikoan erabil daitezkeen ziurtagiria eskatu eta eduki behar du. Fitosanitarioen kasuan ere oso gomendagarria da ziurtagiri hori edukitzea, batez ere substantzia aktiboen osaeraren egokitasunari buruzko zalantzarik izanez gero.
- » Hazi konbentzionalak baimenik gabe era biltzea, edo baimendu gabeko produk tuekin tratatutako haziak. Hazi konbentzionalak ereiteko baimena eskatu behar dio NNPEKri, erein aurretik.
- » Animalia konbentzionalak baimenik gabe sartzea. Eskuratu aurretik, CPAEN/NNPEKri jakinarazi behar diozu animalia konbentzionalen kopurua. ■





Ezagutu CPAEN/NNPEKeko operadoreen berriak

Dorraoko Utxama gaztak gazta ekologiko onenaren saria irabazi du Artzai Egunean

Artzai Eguna, artzaintzaren omenezko jaiak, bere 56. urteurrena ospatu zuen abuztuan eta milaka pertsona Uharte Arakilerera hurbildu ziren. Berrikuntza gisa, aipatzekoa da lehen aldiz gazta ekologiko onenaren saria sortu zela, eta Dorraoko Utxama Gaztak jaso zuela. Bizirik dirauen sektore dinamiko baten errekonozimendua da saria. Dorraoko Utxama gaztandegian Felix Resano eta bere familia artzainak eta ardi latxaren gazta egileak dira. Gainera, beharrezko bazka lantzen dute eta herriko larre eta basoak aprobetxatzen dituzte, baita Urbasa mendilerroa eta Andia ere uda garaian.



Nafarroako bost gaztandegi ekologikok parte hartu zuten latxa ardi-gaztekin: Iturgoyengo Axuribeltz, Altsasuko Larrezabal Eco, Dorraoko Utxama, Gartzaingo Uhaldeko eta Erronkariko Tetxe. ■

Aceite Artajo eta Hacienda Queilesek sariak jaso dituzte AOVEren Munduko Rankinean



Fontellasen dagoen almazara ekologikoa, Artajo olio, World 's Best Olive Oils (WBOO) sailkapeneko onenen artean kokatu da. Horrela, Munduko 1. Almazara Ekologiko Onenaren eta Munduko 2. Almazara Onenaren sariak lortu ditu kategorian orokorrean. Hacienda Queiles, Monteagudon kokatua, Munduko 14. almazara ekologikorik onena izendatu dute.

Aceites Artajotik adierazi dutenez, lorpen hori nabarmentzekoa da "Espainia hegoaldeko eta Italiako ekoizpenak nagusi izan ohi diren industriaren itxaropenak desafiatzen dituelako, oliba-olioaren bikaintasunak muga geografikorik ez duela ezagutzen erakutsiz". Gainera, lau olio ekologiko ere munduko hamar onenen artean daude: Artajo 8 Bio Arbequina, Artajo 10 Bio Koroneiki, Artajo 10 Bio Arbequina eta Artajo 10 Bio Arbosana.

Monteagudon dagoen Hacienda Queiles almazarak ere aintzatespena jaso du olio ekologiko onenen kategorian, eta 15 onenen rankinean sartu da Abbae de Queilesekin. Gainera, munduko 15 almazararik ekologiko onenen artean dago. **Zorionak!** ■

Zunbeltz: behi ekologikoen lehen produktuak



Garai Mitxelenaren eta Andres Azanzaren behi haragi ekologikoaren proiektu kolektiboaren lehen salmentak egin ditu Zunbeltz Nekazaritza Test Guneak. Dagoeneko salduta daude Pirinioetako txahal ekologikoaren 5 kg-ko lehen sortak, tartean, entrekota, xerrak, txuleta edo azpizuna, haragi xehatua, txurraskoa eta gisatzeko haragia, eta 85 euroan saldu dira. Loteak Etxarri-Aranazko Kalaska kooperatibarekin lankidetzan egin dira.

Zunbeltz Nekazaritza Testeko produktuen kontsumoak inguruko nekazaritza-sektorean gazte ekintzaileei laguntzea dakar, belaunaldien arteko erreleboa bultzatuz eta produktu ekologikoak sustatuz. **Zorionak!** ■

Gukalde, Ecoatarrabia eta Mi Masa Madre, salmenta zuzenaren aldeko apustua egiten duten proiektu berriak

2024an ekoizpen ekologikoaren alde egin duten alta berrien artean, merkatu-ratzeko bide laburren eta zuzeneko salmentaren aldeko apustua egiten duten hainbat proiektu daude. Zehazki, CPAEN/NNPEKk antolatzen dituen azoken aldeko apustua egin dute hiru proiektuk.



Gukalden kontserba begetalak eta marmelada agroekologikoak eta artisauak egiten dituzte, gure ingurunea kontserbatzen laguntzen duten kalitatezko produktuak eskainiz. Artiedan daude, Urraul Baxuan, eta mimoz egiten dute produktu bakoitza beren lantegian.



Ecoatarrabiak galleta ekologikoak eta olo-beganak egiten ditu, frutaz eta barazkiz eginak, eta bakoitzari kolore eta zapora bereizgarria ematen dio. Atarrabian dute lantegia, eta, besteak beste, Nafarroako IX. Azoka Ekologikoan parte hartu zuten.



Mi Masa Madre Garesen dagoen okindegi berria da. Eskuz egindako eta ore amarekin soilik hartzitutako ogi ekologikoa egiten dute. Ogiak gain, pizza oreka, molleteak eta madalenak egiten dituzte. ■

Kalaska, Sakanako abeltzaintza kooperatiba ekologikoa



Kalaska bertako okela eraldatzeko ekimen kolektiboa da, eta Sakanari eta inguruko herriei zerbitzua ematen die. Etxarri Aranatzeko dago, eta proiektuaren bidez eskualdeko haragia eraldatzeko zentroari bizia eman zaio. Hiltegiaren ondoko zatiketa-gela jarri da martxan, eta, aldi berean, hiltegia dinamizatu eta biziberritu egingo da. Kooperatiba bost bazkidek osatzen dute eta Etxarri Aranatzeko Udalaren (hiltegiaren jabea) eta Sakanako Garapen Agentziaren laguntza du. Azpiegitura horiek, gaur egun, sarraski-, zatiketa- eta makila-zerbitzua eskaintzen diete inguruko abeltzain, kontsumitzaile eta harategiei.

Piezakatzegelan eta hiltegi bezala alta eman dute CPAEN/NNPEKren gelan, eta zaldientzat, ardientzat eta behientzat prestatuta dago. Proiektua adibide garbia da inguruko sektore ekologikoari zerbitzua emateko, abeltzaintza bizia mantentzen laguntzen duena, eskualdean eta Nafarroan elikadura sistema lurraldetua indartzen eta egituratzen laguntzen duena. ■



Zure proiektu ekologikoari buruzko berriak dituzu?

Bidali xehetasunak prensa@cpaen.org helbidera eta gure webgunean eta buletinean partekatuko ditugu.

Agenda

URTARRILA

EKOmerkatua

Hilabetearen lehenengo larunbatean 10:00etatik 14:00tara.

URTARRILAK

4.

EKOmerkatua

Konstituzio plaza (Baluarte)

URTARRILAK

30.

EKOtopaketa

Geltoki (Iruñea)

CPAEN/NNPEKren egutegi ekologikoa

CPAEN/NNPEKek egutegi ekologikoa argitaratu du EKOMiradas argazki lehiaketaren 12 argazki irabazleekin.

Kontsumitzaileei zuzenduta, nekazaritza eta naturari lotutako hitzordu bat jasotzen du hilero, eta, gainera, tokiko fruta eta barazkien kontsumoari buruzko informazioa erakusten du, produktu ekologikoen, tokikoen eta sasikoien kontsumoa sustatzeko.

Hilabete bakoitzean, elikadurarekin, ingurumenerekin, naturarekin eta ekologiarekin lotutako munduko hainbat egun daude adierazita. Horrez gain, CPAEN/NNPEKk antolatzen dituen azoka eta ekitaldi finko nagusien egutegia ere erakusten da, hala nola EKOTopaketa eta EKOmerkatua. Argazkiek Nafarroako lurralde ekologikoaren edertasuna eta aniztasuna erakusten dute: ardiak eta koartzak Pitillasen, paisaiak eta kalabazak Baztanen, artzain baten egunerokoa Bardean, Lizarraldeko labanda soroak eta Orreagako ardi latxak. ■

Entzuteko nekazaritza ekologikoa, istorio inspiratzaileak podcast-etan CPAEN/NNPEKekin

Elikagai ekologikoak jan, usaindu, ikusi eta entzun daitezke. CPAEN/NNPEKek podcast atal bat jarri du abian navarraecologica.org webgunean, elikagai ekologikoen ekoizpenean eta elaborazioan diharduten pertsonen elkarrizketak eginez. Lehenengo bi ataletan Mermeladas Lurmendi eta Bodegas Azpearen istorioak entzun ditzazkegu. ■

Bat egin eguberri ekologikoekin

01 Gabonetako otorduak

Bete zure erosketa saskia sasiko elikagaiekin, bertakoak eta ekologikoak.

02 Opariak

Oparitu bertako sormena.

03 Dekorazioa

Diseinatu zure apaingarriak material birziklatuekin.



Orainda **ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA** aurrera goaz!